

## **2018-01-30eko OHIKO UDALBATZA**

Irurako udaletxean, 2018ko urtarrilaren 30ean, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Jose Ignacio Imaz Bengoechea, Ainhoa Ugalde Gorostiaga eta Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Mikel Gotzon Iturbe Saizar.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak hasitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxienerako partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

### **LEHENENGO GAIA**

#### **AURREKO AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO (2017-12-26).**

Olaia Nieto zinegotziak adierazi du aktaren hirugarren puntuan agertzen dela berak esan zuela frontoiaren ate bat hondatuta zegoela, eta ez dela horrela, berak esan baitzuen ate batean lanean ari zirela eta ea zer gertatzen zen.

Udalbatzak aho batez onartu du akta, aipatu den zuzenketarekin.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du aktak web-orrira igo gabe daudela.

Idazkariak erantzun dio igoko dituztela.

## BIGARREN GAIA

### ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2017/254 DEKRETUTIK 2017/258 DEKRETURA ARTE ETA 2018/01 DEKRETUTIK 2018/21 DEKRETURA ARTE.

Alkateak 2017/254 dekretutik 2017/258 dekretura eta 2018/01 dekretutik 2018/21 dekretura artekoen berri eman dio Udalbatzari.

## HIRUGARREN GAIA

### IRURAKO ANTOLAMENDU PLAN OROKORRAREN 2. ALDAKETA PUNTUALARI HASIERA EMATEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2012ko maiatzaren 22an, Foru Aldundiak Irurako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartu zuen, eta, gero, 2012ko uztailaren 9ko eta abuztuaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialetan argitaratu zen.

Une honetan Udalak Planaren behin-behineko aldaketa bat egin nahi du helburu hauekin: udaletxearen eraikigarritasuna eta okupazioa areagotzea, Oria ibairantz doan Ibaiondo Bailerari udal-bidearen izaera ematea, eta garrantzia txikiagoko beste batzuk.

Indarreko hirigintza-legediari dagokionez (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 102. artikulua eta hurrengoak) aldaketa hau behin-behinekoa da, eta Legearen 104. artikuluari lotutakoen arabera izapidetuko da.

Ildo horretatik, 2017ko azaroaren 28ko Udalbatzak erabaki du honakoa:

- a) Irurako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 2. aldaketa onartzea.
- b) Aurrerakina izapidetzeari uko egitea.
- c) Herritarrek parte hartzeko programa onartzea.

Con fecha 22 de mayo de 2012, la Diputación Foral aprobó el Plan General de Ordenación Urbana de Irura, posteriormente publicada en los Boletines Oficiales de Gipuzkoa de fechas 9 de julio y 13 de agosto de 2012.

En este momento este Ayuntamiento quiere proceder a la Modificación puntual de Elementos de dicho Plan al objeto de promover el aumento de edificabilidad y ocupación de la Casa Consistorial, el carácter de vial municipal del vial de Ibaiondo Baliara hacia el rio Oria y algún otro elemento menor.

De acuerdo con lo dispuesto en la vigente legislación urbanística, Ley 2/2006 de 30 de junio de suelo y urbanismo, arts. 102 y siguientes, esta modificación tiene carácter de modificación puntual y se tramitará de acuerdo con lo dispuesto en el art. 104 conexos de dicha Ley.

En este sentido y de acuerdo adoptado por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el 28 de noviembre de 2017, se ha acordado lo siguiente:

- a) Aprobar la formulación de la 2ª modificación de elementos del Plan General de Ordenación Urbana de Irura.
- b) Renunciar a la tramitación del Avance.
- c) Aprobar un programa de participación ciudadana.

Iñaki Echeverria arkitektoak dokumentazio teknikoa idatzi du.

Ikusita Udal Hirigintzako Batzordeak aldeko ebazpena eman duela.

Ikusita idazkari-kontu hartzailearen txostena.

Hirigintzako legediak jasotakorekin bat.

Hori ikusita, udalak aho batez hartu du, udal-kideen legezko gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin, honoko

#### ERABAKIA:

Lehen.- Udal honek egin duen Irurako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 2. aldaketa puntuala hasiera batean onartzea.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintziako egunkaririk hedatuenean/hedatuenetan argitaratuta, azkeneko argitalpenetik.

Epe horretan zehar, dokumentazioa denen eskura egongo da, inork aztertu nahi badu eta alegazioak egin nahi badizkio.

Hirugarrena.- Behar diren txostenak eskatzea, bai errepideen arloan Gipuzkoako Foru Aldundiari, bai ur-baliabideen arloan Ur Administrazioari, eta behar diren gainontzeko txostenak ere bai, hala badagokio.

Laugarrena.- Lizentzien emakida

Habiéndose redactado la documentación técnica por el arquitecto D. Iñaki Echeverría.

Visto el dictamen favorable de la Comisión Municipal de Urbanismo.

Visto el informe del Secretario-Interventor.

De acuerdo con la legislación urbanística.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes que representan el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación, el siguiente

#### ACUERDO:

Primero.- Aprobar inicialmente la Modificación Puntual nº 2 del Plan General de Ordenación Urbana de Irura formulada por este Ayuntamiento.

Segundo.- Someter el expediente a información pública durante el periodo de un mes mediante anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el diario o diarios de mayor circulación en la provincia, a partir de la última publicación.

Durante dicho periodo la documentación estará a disposición de cualquiera que quiera examinarlo y se podrán deducir las alegaciones pertinentes.

Tercero.- Solicitar los informes pertinentes en materia de carreteras a la Diputación Foral de Gipuzkoa y a la Administración Hidráulica en materia de recursos hídricos y el resto de los informes pertinentes, en su caso.

Cuarto.- Suspender el

gehienez ere bi urtez etetea, Plan Orokorraren 1. Eremuari (Erdialdea) dagokion udaletxeko orubearen eremuan.

Edonola ere, etenaldia amaituko da ezarritako epea betetzean edo aldaketa hau behin betiko onartzen denean, azken hori lehenago gertatuz gero.

Bosgarrena.-Herritarrek parte hartzeko programa honela gauzatuko da:

- a) Dibulgaziozko materiala herritarren aurrean jartzea.
- b) Bilera publikoa egitea interesa duten herritarrekin.

Seigarrena.- Aurkezturiko alegazioak eta jasotako txostenak aztertu eta gero, dokumentuak behin-behinean onartuko dira.

otorgamiento de licencias, por el plazo máximo de dos años, en el ámbito del solar de la Casa Consistorial Area 1 (Erdialdea) del Plan General.

En todo caso, la suspensión se extinguirá con el mero transcurso del plazo o la aprobación definitiva de esta Modificación, si fuese anterior.

Quinto.-El programa de participación ciudadana, constará de lo siguiente:

- a) Exposición al público de material divulgativo.
- b) Una sesión pública con los ciudadanos interesados.

Sexto.-Una vez examinados las alegaciones presentas y los informes recibidos, se adoptará, en su caso, la aprobación provisional del documento.

## **LAUGARREN GAIA**

### **IRURAKO UDALEKO ETA IRURAKO SAN MIGEL ELIZAKO PARROKIAREN ALOKAIUAREN KONTRATUA ALDATZEA.**

Gai hau jakinarazten da:

a) 2013ko ekainaren 14an Irurako Udalak eta Irurako Elizak sinatu zuten alokairu-kontratua San Migel Plazako 11 eraikinaren lokal batzuk erabiltzeko:

- Behe solairuko egongela.
- 1. solairuko lokala-jatetxea.
- 2. solairuko eskuineko lokala.

b) Udalak ez dauka gaur egun bi lokalak erabiltzeko beharrik.

c) Horren ondorioz, bakarrik lokal bat erabiliko du, hots, behe-solairuko egongela, hilero prezio hau ordaintzearen truke: 684,45 euro (BEZ barne).

Eta udalbatzak aho batez onartu du kontratuaren aldaketa.

**BOSGARREN GAIA**  
**ZIGOR PENALAK HERRI LANENGATIK ORDEZKATZEKO BI ESKAERA**  
**ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

2014ko irailaren 29an, Irurako Udalak espetxe-zigorrak herri-lanengatik ordezkatzeko araudia onartu zuen.

Horren ondorioz, bi eskaera aurkeztu dira:

1.-190 lanegunetan burutzea, martxoaren 5ean hasita eta eginbehar hauekin: hiri-altzariak garbitu eta oinarrizko kale-garbiketa, makinarik erabili gabe.

2.- 12 lanegunetan burutzea, otsailaren 12an hasita eta eginbehar hauekin: hiri-altzariak garbitu.

Udalbatzak aho batez onartu ditu eskaera hauek.

**SEIGARREN GAIA**  
**IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK.**

Txosten hau jakinarazi da:

“2017. EKITALDIKO 4. HIRUHILABETEAN ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA.

2/2012 Lege Organikoak, apirilaren 27koak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzkoak, ekarri du batez besteko epea kontzeptua (OBE). Kontzeptu honek azaltzen du zor komertziala ordaintzeko erabili den denbora edo izan den atzerapena. Horrela Administrazio Publiko guztiek, gardentasun-ariketa berri batean, ordaintzeko batez besteko epea argitaratu beharko dute.

Atxikita dauden orrietan Irurako Udalaren 2017ko 4. hiruhilabeteko ordainketa-epeari buruzko txostenak jakinarazten dizkizuet.

Horren laburpena hau da:

-1. hiruhilabeteko epea: -9,33 egun.

Kopuru negatiboak adierazten du jarritako epea baino lehenago ordaintzen direla fakturak. Eta kopuru positiboak, aldiz, beranduago ordaintzen direla.

Kasu batean positiboa agertzen da, nahiz eta lege barruan egon: muga 30 egunekoa da.”

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

## ZAZPIGARREN GAIA

**GALDE-ERREGUAK.**- Gai hauek jorratu dira:

a) Zinegotzi guztiak jakinaren gainean egoteko, Alkateak adierazi du Gobernuko Deleatuak udaletxeko fatxadan “estelada” kentzeko agindu duela .

Jose Ignazio Imaz zinegotziak adierazi du beraiek ez dutela kenduko.

b) Ainhoa Ugalde zinegotziak adierazi du azken batzordean dirudienez komentatu zela plazako pilonaren ordutegia aldatuko zela eta zer berri dagoen horri buruz.

Alkateak erantzun dio goizean libre uztea proposatu dela, zamalan-mugimendu asko dagoelako, eta arratsaldean ixtea.

Olaia Nieto zinegotziak erantzun dio goizean ume asko egoten dela plazan eta pilonaren ordutegia ezartzeko hori kontuan hartu beharko litzatekeela, eta beraien ustez plazari oinezkoentzako eta autoentzako izaera ematea dela onena.

c) Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du gardentasunari eta parte-hartzeari buruz hitz egin nahi duela. Alkatea Foru Aldundiko Parte Hartze Zuzendaritzan dago, eta, udalean, PNVk eta EH Bilduk 5 eta 4 zinegotzi dituzte hurrenez hurren. Horren harira, alkateak Biltzar Nagusietan autobusari buruz hitz egiteko agerraldi bat egin zuen, Udal osoaren izenean eta oposizioari ezer esan gabe.

Alkateak erantzun dio Biltzar Nagusien gonbita jaso zuela.

Jose Ignacio Imazek erantzun dio nahiko harrigarria egiten zaiola agerraldia Udalaren izenean egitea, oposizioari ezer esan gabe edo behintzat iritzia eskatu gabe; horregatik galdetu dio zergatik izan ziren hain desberdinak Villabonako alkatearen agerraldia, nahiko kritikoa ordutegi berriarekin, eta Irurakoarena.

Alkateak bideoa ikustea edo hitz egitea proposatu dio.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak esan dio kalean jakin ahal izan dutela alkatea inkesta bat egiten ari dela.

Alkateak erantzun dio egokia iruditzen zaiola herritarrekin hitz egitea.

Jose Ignazio Imaz zinegotziak galdetu dio norekin hitz egin duen eta nola egin duen aukeraketa.

Alkateak erantzun dio udal-sailari lagin bat eskatu ziola.

Jose Ignacio Imazek erantzun dio ez zaiola oso egokia iruditzen sistema hori.

Alkateak esan dio aurrekontuari buruz galdera batzuk egin dituela eta aurrekontuak aurkezten direnean emango dituela erantzun horiek.

Jose Ignacio Imazek erantzun dio galdera horiek aurrekontuak prestatu aurretik egin behar direla, eta ondo egongo litzatekeela oposizioarekin aurretiaz hitz egitea gaiari buruz. Orain, berriz, urtarrilaren amaieran daudela eta berandu dabilzala, marjina txikia dagoela negoziatzeko eta hitz egiteko.

Beste gai bat konpostari buruzkoa da. Hobariak kendu dira eta etxolak usteltzen utzi dira. Aitzitik, egoera hori eragin ostean sistema hori jende gutxik erabiltzen duela diote. Alkateak esan dio gai horri buruz hainbat aldiz hitz egin dela oposizioarekin, baina ez dela horrela izan oraingoan, edo ez dela negoziatu. Kontraesan handia dago, izan ere, Foru Aldundiko Parte Hartze Batzarreko kide izanik udaleko oposizioarekin ez du ezertarako hitz egiten.

OHARRA: eztabaida osoa jasota dago hemen: "[www.irura.eus](http://www.irura.eus)".

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:50ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA